

ALIAINTZA NAGUSIAK

Negozioaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren aliatu Nagusiak hiru talde edo figura desberdinetan banatzen dira, guztiek jarduera arrakastaz aurrera eramateko zeregin espezifikoak badute:

1. Ekitaldiak antolatzeko lankidetzan aritzen garen enpresak: Hauek dira denda edo proiektuaren kanpoko lankide estrategikoak. Haien zeregina ez da zuzenean arropa salmentan parte hartzea, baizik eta sustapen-jardueretan eta komunitatearekiko harremanetan laguntzea. Kasu honetan, arroparen berrerabilpenaren kontzientziazioa hedatzeko edo bezero berriak erakartzeko balio duten ekitaldiak, tailerrak edo azoka bereziak antolatzen laguntzen dute.
2. Dendako langileak, haiek dira negozioaren bihotza eta aurpegia. Haiek dira egunero denda martxan mantentzen dutenak eta bezeroekin zuzenean tratatzen dutenak. Beraien zeregina funtsezkoa da; Kudeaketa Praktikoak: Eguneroko lan guztia (operazioak) eramaten dute aurrera. Arropa Kudeatzaileak: Jasotzen den bigarren eskuko arropa hartu, egoeraren arabera sailkatu eta zenbat balio duen (truke-balioa) zehazten dute. Azkenik bezeroarekiko Harremanak: Bezeroekin hitz egin, truke-sistema nola funtzionatzen duen ondo azaldu eta zalantzak argitzen laguntzen diete.
3. Enpresako kudeatzailea/buruzagia: Lidergo-figura honek negozioari ikuspegi estrategikoa eta norabide orokorra ematen dizkio. Aliantza Nagusitzat hartzen da, bera baita baliabideak banatzen (adibidez, dirua, denbora eta materiala zein ataletara bideratuko den erabakitzen), kanpoko aliantzak negoziatzen eta langileen taldea zuzentzen duena. Haien zeregina da negozioaren misioa (berrerabilpena eta trukea) betetzen dela ziurtatzea, erabaki kritikoak hartuz eta denda ekonomikoki eta etikoki bideragarria dela bermatuz.